

herrera

Auzategiko prestakizunak

herrerako auzotegia prest dago hastear dagoen ikasturterako. Beste urteetan bezala haurrentzako eskulanean ikastaroa iragarri dute arduradunek eta era berean, txoko honetako liburutegiari bultzada berri bat nola eman lantzen hasi dira. Aurten arduradun aldaketa egin da eta baliteke horrek ere hainbat berrikuntza ekartzea.

Gaztetxoek ikasketegi begira, datorren ikasturterako liburutegiko materialen antolaketa egin da. Bertan literatura sailak kantitate eta kalitate alde-tik aukera kaskarragoa eskaintzen du kontsulta liburuak baino. Ikasketen laguntzarako kontsulta liburuak gai zabal eta anitzekoak dira. Beraz, auzotegiko liburutegia ikasleku aproposa izango da Herrera eta inguruetakoa ikasleentzat.

Liburutegiaz gain, musika lantzeko intsonorizatutako gelak daude bertan. Lau musika talde aritzen dira orain entsaiatzen. Eskaintza honekin, musika taldeen dinamizazioa bultzatu nahi da.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



laz ekintza eta ikastaro ugari eskaini ziren auzategin auzoko gaztetxoentzat.

altza

Jolastokieta jaietan

datorren astean hasiko dira Jolastokietako jaiak. Jolastokieta Altza, Herrera eta Larratxo artean dagoen etxe multzo handia da eta urtero iraila inguruan antolatzen dituzte jaiak.

Aurtengoan bi dira bertako jai batzordeak, Altzako Kultur Etxearen laguntzaz, antolatu dituen ekintza nagusiak.

Irailaren 15ean, ostirala, gaueko 22.30etatik

aurrera kontzertua eskainiko dute Stick eta 2AM taldeek. Stick taldeak bere lehen maketa grabatua du eta maiz izan da Altzan. 2AM taldeak berriz, kale-ratuak ditu dagoeneko bi maketa eta taldearen helburuen artean lehen diskaren grabaketa dago. 2AM taldeak hard rock delakoa lantzen du eta izugarrizko arrakasta izan dute publiko gaztearen artean.

Kilometroak 95 festaren antolaketa dela eta Herri-Ametza ikastolak Zurriola ikastolarekin batera malabareak antolatu ditu hilaren 16rako «Zirkotipiaren» esku-tik. Topagunea Harria parkea izango da arratsaldeko 17.30etatik aurrera. Gogoratu aurten festa hau Uria mendian egingo dela urriaren 1ean lehen aipatu bi ikastolek antolatuta.

ana

- Elekrika-Blend Sistema
- Makilata Iraunkorra
- Azkazal Labratuak
- Berilen (Indaketa...)

Zedro plaza 2 • DONOSTIA • Tfnoa.: 392051
Nagusia 27 • LASARTE • Tfnoa.: 371891

ZUBELDIA
Ikastetgia

Euskadi etorbidea 5
Tfnoa.: 39 98 77

Lehen eta ertain mailako ikastaroak
Unibertsitaterako sarrera prestakuntza
Hizkuntzak: ingelesa, frantsesa, euskara, alemana
Mekanografia ordenagailuz • Informatika
Nominak, segurtasun soziala, errenta aitortpenak
Kontabilitate teoriko mekanizatua

intxaurrondo

Zinemaz blai Larrotxenen

Irailak 14,
Santa Kruz

festak bete-betean dauzkagu asteburu honetan. Asteazkenean zehar motorrak berotzeari ekin diote haur, gazte eta helduek, asteburuko ekintzei aurre egiteko asmotan. Ostegunean futbito finalak izan ziren frontoian, koardrilen poteoaren ostean. Gaur emango zaie festei hasiera ofiziala, ikurriñaren igoserarekin eta ondoren gazteentzat egingo den kontzertu mundialarekin. Larunbatez, IV Sagardo Eguna ospatuko da. Igan-dean berriz, pilota partiduak, euskal dantzak, trikitixa... Hala ere, guztiaren berri izan zenuten zehatz mehatz aurreko IRUTXULO-n. Santa Kruz eguna utzi genuen aipatzeke. Hona hemen egitaraua:

11.00etan: Meza Nagusia Santa Kruz Parrokian.

11.00etan: Txistulariak kaleetan zehar *Txundata* taldearekin.

12.00etan: Luntxa aiton-amonentzako.

12.30etan: Jolasak (Toka, Bote, Mus...).

14.30etan: Bazkaria.

18.30etan: Haur Jolasak.

20.00etan: Esku Pilota. Jubenilak: *Jauregi* (Zaldibia) - *Gutierrez* (Bergara). Afizionatuak: *Otxoteko* (Lesaka) - *Garate* (Azkoitia).

22.00etan: Danborrada eta *ikurriña* jaitsiera.



Orain arte eskaini diren filme emanaldietara haur ugari inguratu da. Abentura interesgarriak ikusteko aukera oporraldiaren azken astean.

Zinemaren aldeko apustu egin dute aurtengo antolatzaileek, festen lehen egunetarako. Gustora hurbildu dira auzoko gaztetxo-
enak, Indiana Jones, Batman eta Kalabaza Tripon-

tziaren abenturak ikusteko asmoz. Berrikuntza interesgarria izan da honako hau, haurrak oraindik oporretan baitaude eta goizak betetzeko aukera polita baita. Bestalde, hauetarik

filme gehienak euskaraz ari dira pantailaratzen, auzoa euskalduntzeko bideari jarraiki.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ

Zubiaurre pasealeku amaieran, kotxeren parean, autobus geltokia eraikitzen ari dira. Geltoki hau sarritan oharkabean pasa egiten zuten zenbait gidarik eta inguruetan beste aterperik ez dagoenez, egun euritsuetan ez zen giro izaten bertan autobusaren zai egoten zirenetzat.

Lau 1/2dikoko pilota txapelketari eman zitzaion hasiera pasa den aste bukaeran. Hogei jokalarik hartuko dute parte, irailaren 24 bitarteko 5. edizio honetan. Gipuzkoa eta Nafarroako jokalariek

osatzen dute taldea, jubencil eta senior mailetan. Elkarreko pilotari bakar batek hartuko du parte jubencil mailan, Unai Bobillo gazteak hain zuzen. Larunbatez, 17.00etatik aurrera hasiko dira partiduak eta igandetan, goizeko 11.00etatik aurrera.

Abuztu osoan zehar oporraldia izan ondoren, Larrotxene Kultur Etxeak hil honen lehen egunean zabaldu zituen ateak. Oraindik udako ordutegia mantenduko da irailaren 11ra arte, 10.00etatik 14.00etara alegia. Haur

gehienak eskolara hasten diren egun horretan, arratsalde ere irekitzen hasiko dira.

Tomas Karrera intxaurrondotarra libre geratu zen joan den asteazkenean hamasei urte eta zazpi hilabete espetxean pasa eta gero. 1979ko otsailaren 9an atxilotu zuten eta espetxean zegoen preso politiko zaharretakoa zen. Intxaurrondoko Amnistiaren Aldeko Komiteak ongi etorria antolatu du hilaren 9rako arratsaldeko 20.30etan auzoko pilotalekuan.